

Galdera

"Mikel va de sobrado": nola esan euskaraz?

Erantzuna

Hainbat hitz ditugu hiztegieta¹:

[harro](#), [harroputz](#), [handiuste](#), [handigura](#), [handinahi](#), [hanpurus](#), [hanpurutsu](#), [hantuts](#), [hantuste](#), [ustetsu](#), [handiputz](#), [handios](#), [handiusteko](#), [lainezoso](#), [mokofier](#), [mokoharro](#), [ezpainmehe](#), [ezpainestu](#), [burgoi](#), [buruiritzi](#), [iritzi](#), [eretxi](#), [arranditsu](#), [fanfarroi](#), [espantu](#), [haizeputz](#), [putzontzi](#), [arranpalo...](#)

Erabilgarriago, agian, lagunarteko erregistroko zenbait esamolde¹:

[putzak hartu](#), [berrea goitik joan](#), [kaka-loratua izan](#), [panpanduta ibili](#), [panpana hartu](#), [espantu egin](#), [arrandiaz egon...](#)

1/ Hona adibide batzuk:

- *Aspaldian [panpanduta dabil](#) Mikel*
- *Ez zaitetz [panpana hartuta](#) joan horrengana, Mikel, hori zu baino gehiago da eta.*
 - en** get (all) cocky, get stroppy.*
 - es** ponerse borde / chulito -a / farruco -a / gallito -a.*
 - fr** la ramener.*
- *Hor dabil Mikel, [putz ederrak hartuta!](#)*
- *Mikel beti [berrea goitik doa](#).*
 - en** be all that, think one is it.*
 - es** tenérselo creído.*
 - fr** se gober.*
- *[Mikel hain kaka-loratua da](#), uste du atzetik daukala jende guztia.*
 - en** bigheaded, puffed-up, stuck-up.*
 - es** creído, -a, estirado -a, subido -a.*
 - fr** crâneur -euse.*
- *Ea ba nola sartuko duzun arrastuan Mikel [arranpaloori](#).*
 - en** bigheaded, puffed-up, uppish.*
 - es** creído -a, subido -a.*
 - fr** bêcheur -euse, crâneur -euse.*
- *Esr. zah.: [Putza izan ez eta uzterra izan nahi](#)*

2/ Ohiko erantzun serioez gain, zilegi izan bekigu, behingoagatik, umorezko erantzun bat ematea; hartara, egiezu begiratu bat [XXI. mendeko aditz trinkoen zerrenda](#) zirtolari eta dibertigarrian egiten diren proposamen txoroei. Ikusi Zuzen webguneko *Trinkotzaindia* atalean:

<i>¡Tú flipas!</i>	<i>Daflipank!</i>
<i>Ese/a va de sobrao/a</i>	<i>(Hura) dasobera!</i>
<i>Vamos de culo</i>	<i>Dipurdigu</i>
...	

Oharra:

(1) Xehetasun gehiago jakiteko, egin klik hitzetan edo esamoldeetan, jarraitu estekei, eta web-orrietan sartuko zara (Euskaltzaindiaren Hiztegia, Elhuyar Hiztegia, Labayru Hiztegia, Jijaua).